

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

2015eko 4. hiruhilekoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA FINANTZA
SAILA
Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y FINANZAS
Dirección de Economía y Planificación

LABURPENA

EAEko ekonomia %3,1 hazi zen 2015eko laugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago. Horri esker, 2015 osoan BPGaren gehikuntza tasa %2,8an kokatu zen, aurreko urteko emaitza (%1,4) bikoiztuz. Hala hiruhilabeteko tasa nola urteko batez bestekoa Europan eskuratutako balioaren oso gaineratik kokatu ziren. Zehazkiago adierazita, laugarren hiruhilekoan Europar Batasuna %1,8 hazi zen eta Eurogunea, berriz, %1,6. Lehen kasuan, gehikuntza hamarren bat apaldu zen, beraz EAEk lurralde horrekiko diferentziala bi hamarrenetan handitu zuen. Hiruhileko arteko tasan, EAEko ekonomiak %0,7ko hazkundea jaso zuen, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago.

Laugarren hiruhilekoan, kanpo arloaren ekarpena aurreko epealdietakoa baino handiagoa izan zen eta hiru hamarrenetara iritsi zen. Bai esportazioek bai inportazioek urte arteko aldakuntza tasa positiboak eskuratu zituzten, urteko gainontzeko hiruhilekoetakoak oso nabarmen gaudituz. Hala ere, esportazioen bultzadari esker lortu zen aipatu berri den ekarpen positibo hori. Dena dela, EAEko ekonomiaren susperraldia barne eskariaren sendotasunean (%2,8) oinarritzen da oraindik, aurreko emaitza hiru hamarrenetan moteldu zuen arren.

Zehazkiago adierazita, barne eskariaren bi osagai nagusiek bizitasunezko irudia eskaini zuten urte amaieran eta %2,5aren gaineko tasak jaso zituzten, aurreko urteko epe berarekin alderatuta, nahiz eta bilakaera kontrajarriak izan. Alde batetik, azken kontsumoan eginiko gastuak moteldu zuen hazkunde erritmo bizia eta kapital eraketa gordinak suspertzeko joerari jarraipena eman zion. Azken kontsumoaren moteltzea bi agregatuek eragin zuten, baina bereziki administrazio publikoen kontsumoak. Aldagai horrek gorabehera handiak izaten ditu eta hirugarren hiruhilekoko %3,2tik laugarreneko %1,8ra igaro zen. Familien kontsumoak, berriz, bi hamarrenetan gutxitu zuen bere aldakuntza erritmo garrantzitsua, %3,1era arte. Tasa horrek BPGaren gehikuntza berdindu zuen eta aurreko sei hiruhilekoetako joeratik desbideratu zen, denbora horretan etengabe BPGaren gaineratik kokatu zelako.

Kapital eraketa gordinak lau hamarrenetan hobetu zuen emaitza eta %2,6ko gehikuntza bildu zuen, 2007ko amaieratik eskuratu duen handiena baita. Inbertsioaren bultzada hori ekipamendurako ondasunen atalean bakarrik oinarritzen da, gainontzeko inbertsioak geldotasuna erakutsi zuelako berriro. Izan ere, ekipamendurako ondasunetan eginiko kapital eraketa gordina %8,8 azpimarragarria hazi zen, kostuen jaitsierak, finantzazioa lortzeko erraztasunak, igurikimen hobee eta merkatu nagusi batzuen suspertzeak lagunduta. Aurrekoaz gain, ekoizteko ahalmenaren erabilera maila altuetan dago. Hala eta guztiz ere, kapital eraketa gordinaren beste atalak %-0,1eko emaitza izan zuen, eraikuntzaren jarduera motelak baldintzatuta.

Analisia sektoreka egiten denean, nabarmentzekoa da industriak lortu duen sendotasuna, gainontzeko arloena baino biziagoa baita. Izan ere, laugarren hiruhilekoan industriak %4,3 areagotu zuen bere balio erantsia, aurreko datua puntu luze bat gaindituz, barneko zein inguruneko herrialdeetako inbertsioaren bizitasunari esker. Zerbitzuek, EAEko ekonomiaren beste zutabe garrantzitsuena baitira, hamarren batzuk leundu zuten hazkunde erritmoa eta %2,8an kokatu zuten. Arlo pribatuari lotuta dauden jarduerak oraindik gehiago hazten diren arren, horiek izan ziren sektorearen moteltzea eragin zutenak. Zehatz-mehatz adierazita, administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak biltzen dituen taldeak (%3,0) hamarren bakar bat leundu zuen bere tasa. Aitzitik, merkataritza, ostalaritza eta garraioa barnean hartzen dituen (%3,0) hiru hamarren gutxiago hazi zen, gainontzeko zerbitzuak (%3,1) sei hamarrenetan apaldu zen bitartean. Eraikuntzak, berriz, kale egin zuen lehen sei hilekoko gehikuntza positiboak finkatzeko helburuan eta jaitsiera bizkortu zuen (%-0,6).

BPGaren hazkundeak enpleguaren sorrera ekarri zuen berarekin. Kontu ekonomikoen arabera, laugarren hiruhilekoan enplegua %2,0 areagotu zen, hots, lanaldi osoko 17.000 lanpostu inguru sortu ziren. Enplegu horietako gehien-gehienak zerbitzuetako jardueretan gauzatu baziren ere, adierazi behar da industriak %0,6 handitu zuela bere langile kopurua eta hori izan zela 2007tik lortu duen lehen gorakada. Urte osoko batez bestekoan neurtuta, EAEko ekonomiak %1,7 gehitu zuen enplegua 2015ean. Beraz, bi urtez jarraian lortu du tasa positiboak jasotzea.

Ekonomiaren susperraldiak ez du inolako tentsiorik eragin prezioen bilakaeran. Izan ere, BPGaren deflatoarek ez zuen inolako aldaketarik izan 2014ko laugarren hiruhilekoaren aldean. Halaber, KPI indizeak jaitsiera txikia (%-0,1) jaso zuen epealdi berean. Petrolioaren merkatzea da ezohiko portaera horren atzean dagoen arrazoi behinena. Hala eta guztiz ere, azpiko inflazioa, indizearen elementu gorabeheratsuenak kontuan hartzen ez dituen adierazlea baita, %1,0aren inguruan dago kokatuta, goranzko joera argia erakutsiz.


Aurtengo aurreikuspenei dagokienez, Ogasun eta Finantza Sailaren kalkuluak %2,5ean uzten du EAEko BPGaren hazkunde tasa, 2015eko emaitzatik hiru hamarren bakarrik beherago. Industrian, turismoan, ostalaritzan eta enpleguan hautematen diren aldeko inertzien eta ekonomia eragileen igurikimenean nabaria den baikortasunak pentsarazten dute gaur eguneko hazkunde erritmoa datozen hiruhilekoetara ere luzatuko dela, zertxobait ahulduko den arren. Bereziki, Europako ekonomiei mesede egin dieten *bizkarreko haizeak* (petrolioaren merkatzea, euroaren balio galera eta moneta politika hedakorra) ez duela horrelako paper azpimarragarririk jokatu 2016an. Aitzitik, munduko ekonomiaren gainean dauden ziurgabetasunek (Txinaren apaltzeak, Europako finantza sisteman dauden arazoek, FEDaren erabakiek, Brexit-ek, eta abarrek) inguruneko hazkundeari hamarren bat kendu diezaioketela pentsatzen da.

EKONOMIAREN INGURUNEA


Iazko laugarren hiruhilekoan, munduko ekonomia nagusien ekonomia jarduerak, oro har, bizitasuna zertxobait apaldu zuen. Izan ere, epealdi horretarako egin diren lehen zenbatespenek %3,0an kokatu dute munduko hazkundearen tasa, aurreko hiruhilekoko baino hamarren bat beherago eta 2015eko lehen hilekoetan eskuratu zena baino bi hamarren beherago. Nazioarteko merkataritzak, berriz, nolabaiteko hobekuntza ezagutu zuen aurreko hilekoetako geldotasunaren ondoren, eta munduko inflazioak maila txikietan jarraitu zuen.

Munduko ekonomia. BPGa Urte arteko hazkunde tasak


ELGE




Europar Batasuna



AEB



Txina



Iturria: Eurostat eta ELGE.

Izan ere, ekonomia aurreratuek hedatzeko joerari eutsi zioten, baina leunago. Zehatz-mehatz adierazita, ELGEko herrialdeak %1,8 hazi ziren, batez beste, iazko laugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gutxiago. Europar Batasunak ia ez zuen ezer nabaritu inguruneko zurrunbiloa eta nahiko bilakaera egonkorra izan zuen. AEBek antzeko bilakaera izan zuten, baina kanpo arloaren ahultasunak kalte handiagoa egin zuen herrialde horretan, dolarrak epealdi horretan balioa irabazi zuelako. Garapen bidean dauden ekonomiek, berriz, portaera kontrajarriak erakutsi zituzten. Alde onenean, azaleratzen ari diren Asiako eta Europako Ekialde eta Erdialdeko herrialdeak kokatu ziren, hazkunde iraunkorra eskuratu zutelako. Aitzitik, beste muturrean, Amerika Latinoko herrialde esportatzaileak zeuden, batez ere Brasil, laugarren hiruhilekoan %6,0 murriztu baitzuen bere ekonomia eta urteko batez bestekoan %-3,8ko emaitza jaso zuen, 25 urtean izan duen kaxkarrena.

2015eko azken hiruhilekoan, Txinako ekonomiak berriro gutxitu zuen zertxobait bere hazkunde erritmoa eta %6,8 hazi zen. Datu hori bat dator ekonomiaren mailakako moteltzearekin. Esportazioen eta manufakturen jardueraren ahultasunak, batetik, eta inbertsioaren erritmo apalagoak, bestetik, ekonomia galgatu zuten, hazkundera zerbitzuetan eta kontsumoan gehiago oinarritzeko egokitzapenak egiten ari diren testuinguru batean. Urte osoko balantzeak %6,9ko hazkundera erakutsi zuen eta aurreko ekitaldian gertatu zen moteltzeko joera berretsi zuen. Azkenik, inflazioaren presioak kontrolpean zeuden oraindik, eta KPI indizea abenduan %1,9ra arte igo zen arren, urteko balantzea %1,4an finkatu zen, azken sei urteko tasa txikiena baita eta gobernuak ezarri zuen %3,0aren oso azpitik. Horrek beste tarte bat ematen die agintariei ekonomia suspertuko duten neurriak onartzeko.

AEBetan, kontsumo pribatuak eta egoitzaz bestelako inbertsioak, bereziki egituretan eginikoak, indarra galdu zuten. Halaber, munduko ekonomiaren hazkunde motelak eta dolarraren sendotasunak kalte egin zieten esportazioei, eta behera egin zuten lehen aldiz 2009ko hirugarren hiruhilekotik. Aurreko guztiaren ondorioz, BPGaren gehikuntza berriro apaldu zen. Izan ere, urte hasieratik, ekonomia jarduerak puntu oso bat galdu zuen, azken hiruhilekoko hazkunde tasa %1,9an kokatu zelako. Dena dela, lan merkatuaren etengabeko hobekuntza nabarmenak erakusten du ekonomiaren indarrak bere horretan jarraitzen duela eta beste atzeraldi bat etor daitekeela arbuiatu behar dela. Hain zuzen ere, AEBetako langabezia tasa %5,0 izan zen (%4,9 2016ko urtarrilean), 2008tik jaso den txikiena, eta 2,65 milioi lanpostu sortu ziren 2015ean zehar. Urteko balantzean, BPGa %2,4 areagotu zen.

Japonian, inbertsioak, bigarren hiruhilekoz jarraian, %2,0an kokatu zen, sendo eta egonkor. Kontsumo publikoak, berriz, bosgarren hiruhilekoz handitu zuen bere hazkunde erritmoa. Hala ere, neguan izan zituzten tenperatura altuek jantzien salmenta nabarmen jaitsarazi zuten, eta horrek kalte egin zion kontsumo pribatuari, gutxi gorabehera herrialde hartako BPGaren %60 delarik. Halaber, ekonomiaren beste motor bat, esportazioak, %0,9 murriztu ziren, AEBetako

eskaria jaitzi zelako, baita Txinako eta azaleratzen ari diren beste ekonomietakoa ere. Aurrekoaren ondorioz, japoniar ekonomiak okerrera egin zuen berriro iazko azken hiruhilekoan eta %0,8 baino ez zen hazi, aurreko emaitza baino bederatzi hamarren gutxiago. Hazkundearen urteko batez bestekoa %0,4 izan zen. Datu positiboena langabeziaren eskutik iritsi zitzaizen, 2016ko urtarrilean %3,2ra murriztu zelako, 1997ko apiriletik jaso den apalena baita.

Europar Batasunak nolabaiteko egonkortasuna erakutsi zuen iazko azken zatian, %1,8 hazita, hots, aurreko sei hilekoetan baino hamarren bat gutxiago. Barne eskariaren agregatu guztiek ekarpena egin zioten hazkundeari. Aitzitik, kanpo arloak puntu erdi bat kendu zion ekonomia jarduerari, 2009ko lehen hiruhilekotik, atzeraldi betean, ezagutu den kenketarik handiena baita. Zehazkiago adierazita, Alemaniak kontsumo pribatuaren eta esportazioen bizitasun motelagoa nabaritu zuen eta erritmoa galdu zuen (%1,3 hazi zen, aurreko hiruhilekoko %1,7aren aldean). Kontrako norabidea hartu zuen Frantziak, inbertsioaren susperraldi sendoak ekonomia jarduera %1,4ra gorarazi zuelako. Erresuma Batuan, kontsumoaren sendotasuna azpimarratu behar da, bai publikoarena bai pribatuarena. Halere, esportazioen eta, neurri txikiagoan, inbertsioaren moteltze garrantzitsuak kalte egin zion jarduerari, %1,9 hazi baitzen, hots, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gutxiago.

Lan merkatuari dagokionez, Europar Batasuneko langabezia tasak hoberantz egin zuen berriro eta 2016ko urtarrilean %8,9an kokatu zen, abenduko datua hamarren batean jaitziz eta 2015eko hileko berean zegoena baino ia puntu oso bat beherago. Izan ere, iazko urtarriletik, Europar Batasuneko langabeen kopuruaren jaitziera bi milioi lagunetik gorakoa izan zen. Beste behin ere, alde handia dago herrialdeen langabezia tasen artean. Mutur batean, Alemaniak dago (%4,3), herrialdea berriro batu zenetik jaso duen txikiena baita. Beste muturrean, Grezian azaroan (argitaratu den azken datua hori da) kontabilizatu zen %24,6 dago. Azkenik, prezioek nolabaiteko suspertzea izan zuten 2015eko azken zatian eta 2016ko urtarrilean, energiaren merkatzea leundu zelako eta zerbitzuak garestitu zirelako. Horren ondorioz, inflazioak zertxobait gora egin zuen. Hala eta guztiz ere, ez dirudi goranzko joera hori finkatuta dagoenik, kontuan hartuta Eurostatek otsaileko KPIrako egin duen lehen zenbatespenean Euroguneko prezioak %0,2 jaitzi zirela.

Espainiaren BPGa %3,5 hazi zen 2015eko laugarren hiruhilekoan. Tasa hori 2007ko laugarren hiruhilekotik, hots, krisia hasi baino lehen, eskuratu duen handiena da. Hedaldiaren motorra barne eskaria izan zen berriro, bereziki kontsumo pribatua, inflaziorik ezak eta enpleguaren sorrera garrantzitsuak lagunduta. 2015 urte osoko batez bestekoan, espainiar ekonomiak %3,2 areagotu zuen bere BPGa, azken zortzi urteko emaitzarik onena baita. Hiruhilekoka eginiko analisisira itzuliz, ekoizpen adar guztiek, agregatuak batuta zein bananduta, hazkunde positiboak lortu zituzten. Baita finantza eta aseguru jarduerak ere, 2008ko erdialdetik tasa negatibotan murgilduta egon bazen ere.

Ekonomia jardueraren tonu onak bere isla utzi zuen lan merkatuan ere. Hain zuzen ere, 2015eko laugarren hiruhilekoan, enpleguaren gorakada %3,0ra iritsi zen urte arteko tasan, eta urtebete batean lanaldi osoko 495.000 lanpostu baliokide sortu ziren. Gorakada horren atzean adar guztietan lortu zen enplegu sorrera garrantzitsua dago, bigarren hiruhilekoz jarraian gertatu dena. Aldeko joera horrek langabezia tasa 2016ko urtarrilean %20,5era jaitea ahalbidetu zuen, 2011ko apiriletik izan den txikiena. Halaber, langabezia tasaren jaitsiera handiena Europako herrialdeen artean, Espainiarena izan zen, aurreko urteko hileko beraren aldean 2,6 puntu murriztu zelako. Dena dela, oraindik 4.675.000 langabe daude, hots, ekonomia atzeraldia hasi baino lehen zeudenen bikoitza baino gehiago. Beste aldetik, erregaien etengabeko merkatzeak baldintzatu zuen inflazioaren bilakaera, KPI espainiarra 2016ko urtarrilean %0,3 jaistera behartu zuelako. INEren lehen zenbatespenaren arabera, otsailean joera hori areagotu zen eta indize orokorra %-0,8an kokatu zen.

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2014	2015	2014		2015			
			III	IV	I	II	III	IV
Azken kontsumoko gastua	0,9	3,0	1,1	1,2	2,3	2,8	3,4	3,5
- Familien gastua	1,2	3,1	1,5	1,8	2,6	2,9	3,6	3,5
- Administrazioaren gastua	0,0	2,7	0,2	-0,5	1,5	2,5	3,0	3,7
Kapital finkoaren eraketa gordina	3,5	6,4	3,4	4,9	6,1	6,3	6,7	6,4
- Aktibo finko materialak	3,7	7,2	3,6	5,6	7,0	7,1	7,6	7,1
- Eraikuntzan	-0,2	5,3	1,3	4,1	6,2	5,2	5,2	4,6
- Ekipamendurako ondasunetan	10,5	10,2	7,4	8,1	8,3	10,1	11,2	10,9
- Jabetza intelektualeko produk.	2,1	1,8	2,2	0,7	1,0	1,9	1,7	2,8
Nazio eskaria (*)	1,6	3,7	1,8	2,0	3,1	3,4	4,1	4,1
Esportazioak	5,1	5,4	6,4	6,5	5,8	6,0	4,5	5,3
Inportazioak	6,4	7,5	7,3	6,8	7,6	7,4	7,2	7,7
BPG (m.p.)	1,4	3,2	1,7	2,1	2,7	3,2	3,4	3,5
Nekazaritza eta arrantza	-3,7	1,9	-2,9	-8,7	-4,0	2,0	3,7	6,2
Industria	1,2	3,4	1,5	2,5	3,0	3,6	3,8	3,4
Eraikuntza	-2,1	5,2	0,2	3,1	5,9	5,8	5,1	4,0
Zerbitzuak	1,9	3,1	2,1	2,5	2,7	3,0	3,3	3,4
Produktuen gaineko zerga garbiak	0,8	2,8	1,3	1,7	2,3	2,6	2,7	3,6
GOGORATZEKOAK								
- Kontsumoko prezioen indizea	-0,2	-0,5	-0,3	-0,5	-1,0	-0,3	-0,4	-0,3
- Enplegua (**)	1,1	3,0	1,7	2,4	2,9	3,0	3,1	3,0

Oinarri urtea: 2010. (*) BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena. (**) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak. Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

EAEko ekonomia %3,1 hazi zen 2015eko laugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoko emaitza hamarren bat hobetuz. BPGa gero eta gehiago hazi da urte osoan zehar. Bilakaera on horri esker, 2015eko batez besteko emaitza, termino errealetan, %2,8 izan zen, aurreko urtekoa bikoiztuz eta 2007tik eskuratu den handiena lortuz. Beste aldetik, hirugarren eta laugarren hiruhilekoen artean dagoen alde txikiak eta buletin honetan eskaintzen diren aurreikuspenek pentsarazten dute EAEko ekonomia oraingo zikloaren puntu gorenean dagoela jadanik, baita hazkunde potentzialaren zertxobait gainera ere, eta datozen hiruhilekoetan, susperraldian lagundu duten arrazoi haietako batzuk apalduko diren heinean, hazkunde erritmoak oraingoaren antzekoak edo apalxeagoak izango direla. Hiruhileko arteko tasek bide hori seinalatzen dute, iazko azken hiruhilekoan eskuratu zen hazkundea %0,7ra mugatu baitzen, hirugarrenean %0,8 eta bigarrenean %1,0 izan ziren bitartean.

ESKAINZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2014		2015		
			IV	I	II	III	IV
BPG erreala	1,4	2,8	2,0	2,2	2,7	3,0	3,1
Nekazaritza eta arrantza	-10,0	7,4	-17,1	5,5	-3,0	7,3	22,3
Industria eta energia	1,5	2,7	1,3	0,3	3,1	3,1	4,3
- Manufakturen industria	2,3	2,8	2,1	0,4	3,2	3,3	4,5
Eraikuntza	-3,2	0,0	-2,1	0,6	0,2	-0,2	-0,6
Zerbitzuak	1,5	3,0	2,8	3,0	2,9	3,2	2,8
- Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	2,0	3,1	3,4	3,1	2,9	3,3	3,0
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	2,1	2,3	2,5	2,6	2,3	2,2	2,1
- Gainontzeko zerbitzuak	0,9	3,2	2,6	3,0	3,2	3,7	3,1
Balio erantsi gordina	1,1	2,8	2,0	2,2	2,7	3,0	3,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	3,8	3,0	2,9	2,7	2,9	3,3	3,1

Iturria: Eustat.

Laugarren hiruhilekoaren analisisa egiteko orduan nabarmendu behar den ezaugarrietako bat BPGaren gehikuntzak izan zuen osaera da, aurreko bi hiruhilekoetan sektoreen artean hauteman zen orekaren ondoren, laugarrenean manufaktura jardueren bultzada biziagoa

nabaritu delako. Hain zuzen ere, erdialdeko hiruhilekoetan industria eta zerbitzuak antzeko tasan hazi ziren, baina laugarrenean industriaren balio erantsia aurreko epealdietan baino askoz ere gehiago areagotu zen. Aitzitik, zerbitzuek hamarren gutxi batzuetan murriztu zuten urte arteko aldakuntza tasa.

JARDUERA ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2015			2016	
			II	III	IV	Urtarrila	Otsaila
Industria							
Industria produkzioaren indizea	1,4	3,7	6,1	4,2	4,0	5,9	---
Industria giroaren indizea	-12,6	-3,9	-2,3	-1,8	-5,6	2,7	-0,6
ekoizteko ahalmen. erabilera (%)	76,1	79,7	82,4	79,1	78,5	---	79,3
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-2,2	-0,3	-0,3	-0,1	0,5	1,4	1,2
Eraikuntza							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	-4,6	-0,4	-0,8	-0,1	-1,1	---	---
Obrak zuzentzeko bisatuak (etxeak)	2,0	45,5	0,0	-5,1	396,1	---	---
Etxebizitzaren salerosketak	8,8	17,2	18,0	20,8	11,8	6,3	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-3,2	-0,5	-0,5	-0,7	-0,1	-0,1	-0,2
Zerbitzuak							
Hegazkinen bidezko trafikoa	5,3	6,5	6,6	7,7	6,8	12,7	10,6
Hoteletan igarotako gaualdiak	4,0	8,2	6,5	7,4	10,7	15,0	---
Hoteletako okupazioa	46,4	49,8	50,8	68,4	45,3	31,4	---
Negozio zifren indizea	4,2	4,3	5,1	6,0	4,1	---	---
Zerbitzuen koiuntura indizea	1,3	2,6	3,2	3,9	2,3	---	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,4	2,8	2,9	2,7	2,9	2,8	2,5

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Energia eta Turismo Ministerio, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantza eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Industriaren balio erantsi gordinak izan zuen bizitasuna baieztatuta geratu zen sektore horretako adierazleen analisian. Izan ere, industria produkzioaren indizeak (IPI) hazkunde nabarmena lortu zuen urtean zehar, aurreko urtekoa baino askoz ere handiagoa. Bultzada horren zati handi bat EAEko industriaren atal esanguratsuenetako baten bizitasunaren eskutik etorri zen, hots, ekipamendurako ondasunen eskutik, iazko laugarren hiruhilekoan %8,8 hazi zirelako urte arteko tasan. Inbertsioaren susperraldia, hala EAEkoa nola inguruneko merkatuena, dago ondasun mota horrek urtean zehar izan zuen bultzadaren oinarrian. Gainontzeko jarduerak ere emaitza onak eskuratu zituzten, baina tamaina apalagokoak. Hain zuzen ere, kontsumorako ondasunen ekoizpena %2,2 hazi zen urteko azken hiruhilekoan,

kontsumo iraunkorreko ondasunen jarduerak (%8,5) bultzatuta, itxi zen Fagor enpresak utzi zuen hutsunea betetzeko sortu ziren ekimen berriei esker. Bitarteko ondasunen produkzioak ere aldakuntza tasa esanguratsuak (%3,0) izan zituzten epealdi horretan, eta energia alorreko ondasunek hedaldiari eutsi zioten (%0,9), gorabehera handiak izan arren.

Oro har, sektorearen igurikimenak onak dira oraindik. Izan ere, industria giroaren indizearen arabera, 2015eko perspektibak aurreko urtekoak baino zortzi puntu luze gorago zeuden, eta iazko azken zatian urtearen erdialdeko emaitzen aldean atzerakada bat bizi izan bazen ere, dagoeneko argitaratu diren 2016ko datuek (urtarrilekoak eta otsailekoak) seinalatzen dute aurtengo lehen hiruhilekoa baikorra izango dela 2008ko hasieratik. Eskari zorroari buruz eman dituzten erantzunak adierazlearen atal ahulena da oraindik eta ez du guztiz hoherentz egiten. Aitzitik, gero eta gehiago dira ekoizpenaren joera ona dela uste dutenak, oraindik eremu ezkorrenean daudenak baino askoz ere gehiago. Orobat, saldu gabeko produktuen stocka oso txikia da eta, horren ondorioz, eskariaren igoera txikiari ere ekoizpena handitzen erantzun beharko zaio. Azkenik, industriaren enpleguaz duten igurikimenak baikorrak dira eta gero eta hobeak.

Halaber, zerbitzuek ere bizitasun handiko irudia eskaini zuten 2015eko azken hiruhilekoan, baina aurreko epealdiaren aldean nolabaiteko moteltzea izan zuen. Hain zuzen ere, balio erantsiaren gehikuntza tasa hirugarren hiruhilekoko %3,2tik laugarreneko %2,8ra pasa zen. Hala eta guztiz ere, 2015eko batez bestekoak (%3,0) aurreko urtean zerbitzuek eskuratu zuten gehikuntza tasa (%1,5) bikoiztu zuen. Laugarren hiruhilekoko apaltzea agregatua osatzen duten hiru taldeetan gauzatu zen, baina urte osoko bilakaerari erreparatuta, moteltzeko joera garbiagoa izan zen arlo publikoari lotuagoak diren jardueretan, urte hasierako %2,6tik amaierako %2,1era igaro zirelako. Aitzitik, gainontzeko bi taldeek %3,0aren zertxobait gaineko erritmoak lortu zituzten ia urte osoan zehar.


Zerbitzuen sektore osoaz egiten diren koiunturako bi inkestek laugarren hiruhilekoan bizi zen moteltze hori islatu dute. Alde batetik, Eustatek argitaratzen duen zerbitzuen koiuntura indizeak %2,3an kokatu zuen azken hiruhilekoko hazkundearen arteko tasan, aurreko epealdiaren aldean (%3,9) apaltze garbia erakutsiz. Beste aldetik, INEK kalkulatu duen zerbitzuen negozio zifrak %6,0tik %4,1era moteldu zuen gehikuntza eritimoa. Gutxiago hazteko joera orokor horretatik aldendu zen turismoa, bai 2015eko amaieran bai 2016ko lehen hilekoetan oso zenbaki garrantzitsuak jasotzen jarraitu zuelako. Izan ere, dagoeneko ezagutzen den aurtengo urtarrileko eta, bere kasuan, otsaileko informazioak hainbat puntutan areagotzen ditu hoteletan igarotako gaualdien bultzada bizia eta EAEko aireportuetatik bidaiatu duten pertsonen kopurua ere.

Hiruhilekoaren irudi txarra eraikuntzak eskaini zuen berriro, iazko lehen seihilekoan lortu zuen suspertze zalantziari segida emateko gai izan ez zelako eta tasa negatiboetara itzuli zelako. Zehatz-mehatz, laugarren hiruhilekoan %0,6ko jaitsiera jaso zuen urte arteko tasan. Halere, zantzu batzuen arabera, etxebizitzaren atala suspertzen ari da. Alde batetik, etxebizitzaren salmenta %11,8 areagotu zen azken hiruhilekoan eta %17,2, berriz, 2015 urte osoan, aurreko urtean lortutako gehikuntza bikoiztuz. Beste aldetik, etxebizitza berriak egiteko bisatuak, jardueraren adierazle aurreratua baita, laukoiztu ziren urte amaieran eta %45 hazi ziren urteko batez bestekoan. Eustatek sektore horretarako osatzen duen koiuntura inkestak berak adierazten du eraikinen atala (%1,3) hobeto doala obra zibila (%-12,9) baino.


BPGaren hedatze garrantzitsuak lanpostuak sortzea ahalbidetu zuen, aurreko hiruhilekoetan baino erritmo biziagoan ere. Zehazkiago, kontu ekonomikoek %2,0an kalkulatu dute lanaldi osoko lanpostu baliokideen gorakada iazko laugarren hiruhilekoan, aurreko epealdiko emaitza bi hamarrenetan gaudituz. Tasa horrek esan nahi du 17.000 lanpostu baino zertxobait gehiago sortu zirela 2014ko laugarren hiruhilekoaren eta 2015eko epealdi beraren artean. Halaber, enplegua sortu den bigarren urte jarraitua da, 2014ko datu apalaren ondoren.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzak

Laugarren hiruhilekoan sortu ziren lanpostuetako asko zerbitzuen jardueretan gauzatu ziren, urte arteko tasan sektore horretako enplegua %2,7 hazi baitzen, 2008tik jaso den tasarik

gorena. Halere, hiruhilekoaren ezaugarriak aipagarriena industriak eskaini zuen, lehenengo aldiz 2007ko amaieratik enplegua sortu zuelako. Izan ere, industriaren enplegua %0,6 hazi zen eta 1.000 lanpostu inguru sortu zituen. Aitzitik, eraikuntzak eta lehen arloak landunak galdu zituzten laugarren hiruhilekoan, urte arteko tasan neurtuta. Lehen kasuan, jaitsiera %0,4ra iritsi zen eta dagoeneko zortzi urte eman ditu etengabeko beherakadak pilatzen. Bigarren kasuan, galera %1,3 izan zen, baina lehen hiruhilekoetako irabaziekin konpentsatu zen.

Lan merkatuaz eskura dagoen azken informazioak, Gizarte Segurantzaren afiliazioak eskainiak, pentsarazten du lan merkatuaren hobekuntza 2016ko hasierako hilekoetara ere hedatu dela. Hain zuzen ere, aurtengo urtarril-otsailean EAEko afiliatuen kopurua %2,2 areagotu zen, iazko laugarren hiruhilekoan lortutako emaitza berdinduz. Erregistro horren lerro nagusiak bat datoz kontu ekonomikoen informazioarekin lehenago adierazi diren ezaugarriekin. Bereziki, industriaren enplegua sendotzen ari da aurtengo hasieran eta afiliazioaren gehikuntza %1,3ra seinalatzen du. Aldi berean, eraikuntzak oraindik ez du saldo positibo bat lortu, nahiz eta oraingo jaitsiera (%-0,2) oso txikia den. Azkenik, zerbitzuetako hazkunde erritmoa apaldu da, laugarren hiruhilekoko %2,9tik aipatu diren bi hilekoetako %2,6ra.

ekoizpenaren eta enpleguaren gehikuntza nabarmenek lan faktorearen itxurazko produktibitatea %1,1ean utzi zuten laugarren hiruhilekoan. Tasa hori aurreko bi hiruhilekoetan bildu zenaren antzekoa da eta bat dator 1995etik bildu den batez besteko balioarekin. Lehen arloa alde batera utzita, ezohiko irabazia (%23,9) jaso zuelako eta gorabehera handiak izaten dituelako, gorakada garrantzitsuena industriak eskuratu zuen berriro (%3,7). Sektore horrek %3,0tik gorako irabaziak lortu ditu azken bi urtean, beraren batez besteko historikoa %2,0aren inguruan dagoenean. Beste aldetik, zerbitzuetako irabaziak apalak izan ziren (%0,2) eta eraikuntzan, berriz, zertxobait negatiboak (%-0,2).

Barne eta kanpo eskaria

Barne eskariak partaidetza erabakigarria izan zuen EAEko barne produktu gordinaren gehikuntzan, 2015eko laugarren hiruhilekoan, %2,8 hazita. Tasa hori garrantzitsua da, baina aurreko hiruhilekoan eskuratu zuena baino hiru hamarren txikiagoa da. Hala ere, barne eskariaren moteltze hori konpentsatuta geratu zen kanpo saldoaren bultzada handiago batekin, hiru hamarreneko ekarpena egin ziolako BPGari, aurreko epealdietakoa handituz.

Barne eskariaren bi osagai nagusiak antzeko erritmoan hazi ziren laugarren hiruhilekoan, baina joera kontrajarria erakutsi zuten. Izan ere, azken kontsumoko gastuak %2,8ko hazkundea

eskuratu zuen laugarren hiruhilekoan, aurrekoan baino puntu erdi bat gutxiago. Kapital eraketa gordinak, berriz, %2,6 areagotu zuen bere balioa, baina kasu horretan lau hamarrenetan hobetu zuen hirugarren hiruhilekoko emaitza, urte osoan zehar gauzatu zen etengabe bizkortzeko prozesu batean. Gaurko inbertsioak biharko ekoizpena lagunduko duen heinean, hazkunde eredian kapital eraketa gordinak pisua irabaztea, zikloaren oraingo unean gertatzen ari den bezala, epe ertainean onuragarriagoa izan daiteke kontsumoaren bultzadan oinarritutako beste eredu bat baino.

ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2014		2015		
			IV	I	II	III	IV
BPG errealak	1,4	2,8	2,0	2,2	2,7	3,0	3,1
Gastua azken kontsumoan	1,5	2,8	2,5	2,3	2,9	3,3	2,8
- Familien gastua kontsumoan	1,6	3,1	2,7	2,9	3,3	3,3	3,1
- Adminis. gastua kontsumoan	1,1	1,6	2,0	0,2	1,1	3,2	1,8
Kapital eraketa gordinak	-0,6	2,0	0,2	1,3	1,8	2,2	2,6
- Ekipamendu ondasunak	3,0	6,5	4,3	3,8	5,9	7,4	8,8
- Gainontzeko inbertsioak	-2,1	0,0	-1,5	0,3	0,0	-0,1	-0,1
Barne eskaria	1,1	2,6	2,0	2,1	2,7	3,1	2,8
Esportazioak	3,6	-0,2	4,8	-0,2	0,7	-3,2	2,1
Inportazioak	3,0	-0,2	4,6	-0,3	0,7	-2,8	1,6

Iturria: Eustat.

Azken kontsumoaren barruan, aurreko hiruhilekoan bi atal nagusiek erakutsi zuten berdintasuna bertan behera geratu zen. Izan ere, laugarren hiruhilekoan familien kontsumoak ia aldaketarik gabe eutsi zion aurreko tasari, baina kontsumo publikoak oso nabarmen moteldu zuen hirugarren hiruhilekoko gorakada ezohikoa, %1,8an kokatu arte. Kontsumo publikoak urtean zehar gorakada handiak izan zituen arren, berezko ezaugarria baitu hori, urte osoko gehikuntza tasa (%1,6) bateragarria da ekonomiaren %2,8ko hazkundearekin eta defizit publikoa kontrolatzeko helburuarekin. Kontsumo pribatuak, berriz, ekonomiaren bilakaerara egokitu zuen bere ibilbidea, aurreko sei hiruhilekoetan BPGaren gehikuntza tasa etengabe gainditu ondoren. Enpleguaren sendotasunak, prezioen geldotasunak, soldaten igoera txiki batek, igurikimenean hobekuntzak eta kredituak lortzeko erraztasun handiagoak, beste arrazoi batzuen artean, agregatu horren hazkundera laguntzen dute.

Dagoeneko aipatu denez, kapital eraketa gordinak hobekuntza garrantzitsua erakutsi zuen urtean zehar, laugarren hiruhilekoko urte arteko tasa %2,6an utzi arte. Hala ere, bilakaera oso ezberdina izan da osagai bakoitzean. Izan ere, bultzada osoa ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak eman zuen, %8,8ko gehikuntza tasa eskuratu zuelako. 2006ko amaierara joan behar da tamaina horretako datu bat aurkitzeko. Aitzitik, gainontzeko inbertsioak, eraikuntzan eginikoa barnean hartzen baitu, joera hutsala (%-0,1) erakutsi zuen berriro, aurreko bi hiruhilekoetako antzera.

Ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioaren bultzada sendo hori baieztatzen dute agregatu horri lotuago dauden koiunturako adierazleek. Are gehiago, pentsatzekoa da bizitasun hori areagotu dela 2016ko lehen hilekoetan. Esate baterako, IPIk kalkulaten duen ekipamendurako ondasunen ekoizpena %8,8 hazi zen laugarren hiruhilekoan eta %19,9 handitu zen aurtengo lehen hilekoan. Orobat, ondasun horien inportazioa %17,3 areagotu zen urtarrilean, Aduana eta Zerga Bereziatarako Sailak ezagutarazi duenez. Ekoizteko ahalmenaren erabilera altuak, zorpetze maila oso nabarmen murriztu duten enpresek kreditua lortzeko erraztasun handiagoa izateak, bai tokiko bai inguruko merkatuen eskaria suspertu izanak, murrizten ari diren energia kostuek eta etorkizunari buruzko igurikimen baikorragoek, beste arrazoi batzuen artean, azaltzen dute ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioaren gehikuntza sendo hori.

Kanpo saldoak hiru hamarreneko ekarpena egin zion BPGaren gehikuntzari 2015eko laugarren hiruhilekoan. Balio hori ez da oso handia, baina urrun dago aurreko lau hiruhilekoetan jaso ziren emaitza ia hutsaletatik eta INEK ekonomia espainiarrarentzat zenbatetsi duen 0,6 puntuko ekarpen negatibotik eta Eurostatek Europar Batasunerako kalkulatu duen 0,5 puntuko kenketatik. EAEko ekonomiari eginiko ekarpen positiboa atzerrira esportatutako ondasunen eta zerbitzuen hazkundean oinarritu zen (%2,1 termino errealean), inportazioen bultzada (%1,6) txikiagoa izan zen bitartean. Termino nominaletan, esportazioen eta inportazioen aldakuntza tasak, hurrenez hurren, %2,2 eta %2,0 izan ziren. Beraz, erosketak eta salmenta prezioak ez ziren asko igo.

Hala ere, prezioek garrantzia esanguratsua izan zuten atzerrian saldutako ondasunen analisisian. Izan ere, kanpoan saldutako ondasun eta zerbitzuen balioaren gehikuntza, adierazi den bezala, %2,2 igo bazen, atzerrian (Estatuko beste erkidegoak kontuan hartu gabe) saldutako ondasunen (zerbitzurik gabe) datuek %2,4ko jaitsiera seinalatzen dute laugarren hiruhilekoan neurketa eurotan egiten denean, baina %8,0ko hazkundea da tonatan kalkulaturik. Antzekoa gertatzen da atzerriatik inportatutako ondasunak aztertzen direnean, %1,4 murriztu zirelako eurotan neurtuta, baina %7,4 handitu ziren tonatan zenbatuta. Beste modu batean adierazita, atzerriarekiko salerosketen trafikoa askoz handiagoa izan zen laugarren hiruhilekoan, baina erositako eta saldutako produktuen balioa txikiagoa izan zen.

Prezioen eragina, oso bereziki, energiako produktuetan nabaritzen da eta lotuta dago petrolioak nazioarteko merkatuetan izan duen merkatzearekin. Zehazkiago adierazita, Brent motako upela, eurotan, %35aren inguruan merkatu zen laugarren hiruhilekoan aurreko urteko epealdi berarekin alderatuta eta %43, berriz, kalkulua dolarretan egiten denean. Ehuneko horiek ez dira asko aldatu 2016ko lehen hilekoetan. Merkatze horren ondorioz, erregai mineralen esportazioa, bolumenean, %19,2 hazi bazen ere, salmentaren balioa aurreko urtekoa baino %20,8 txikiagoa izan zen. Antzeko zenbakiak lortzen dira produktu horien inportazioak aztertzen direnean, zeren eta erosketen bolumena %12,1 hazi baitzen, baina erosketen horien faktura %32,1 jaitsi zen urte arteko tasan.

Energiaz bestelako produktuek ere nabaritu zuten prezioen jaitsiera, baina erregai mineralen kasuan baino gutxiago. Izan ere, laugarren hiruhilekoan, esportatutakoaren bolumena %2,0 handitu zen, baina beraren balioa eurotan 2014ko laugarren hiruhilekoarena bezalakoa izan zen. Metalurgiako ekoizkinek azaltzen dute bilakaera hori, urte arteko tasan haiek ere salneurria gutxitu dutelako. Zehazkiago adierazita, metalak eta beren manufakturak alorreko esportazioen bolumena %4,7 hazi zen, baina ondasun horien balioa %4,9 jaitsi zen aurreko urteko epe beraren aldean. Kontrakoa gertatu zen ekipamendurako ondasunekin, aurreko urtekoa baino bolumen txikiagoa esportatu zutelako (%-2,3) 2015eko laugarrenean, baina ordukoa baino balio handiagoa (%1,7) eskuratu zuten.

Aurreko hiruhilekoetako eskema berriro zen laugarrenean ere eta herrialde garatuek berriro handitu zituzten EAEko produktuen erosketak (%3,0), azaleratzen ari diren herrialdeek inportazioak gutxitu zituzten bitartean (%-19,5). Hori dela eta, atzerrian saldutakoa gero eta gehiago metatzen da herrialde garatuetan, bertako eskariak erritmo neurritsuetan hazten baitira, azaleratzen ari diren herrialde garrantzitsu batzuetan, ordea, berebiziko zailtasunak bizi diren bitartean. Izan ere, 2015eko laugarren hiruhilekoan, atzerrira esportatutako guztiaren %80,3 ELGEko herrialdeetara bideratu zen, aurreko urtean ehuneko hori %76,2ra mugatu zen bitartean. Merkatuen egiturazko aldaketa horretan, deigarria da erregai mineralen eta ibilgailuen esportazioan hautematen den kontzentrazio altua, guztietatik %94,0 baino gehiago herrialde garatuetara bidali zelako.

Herrialde garatuen artean, Europara esportatutakoak emaitza ona lortu zuen (%2,0), baina AEBetara bidalitako salmentak behera egin zuen (%-3,6). Hala ere, kontuan hartu behar da iparramerikar herrialde horrekin salerosketetan erabiltzen diren produktu asko erregai mineralak direla eta beraien merkatzeak baldintzatzen duela emaitza. Izan ere, erregaien salmenta %41,6 areagotu zen, baina merkatzearen ondorioz salmentaren balioa %1,3 jaitsi zen. Merkatu horretako beherakada azaltzen duten beste faktore batzuk gainontzeko produktu esanguratsuen jaitsiera da, hala nola makineria eta galdaketako manufaktura, biek oso jaitsiera garrantzitsua izan zutelako, hala bolumenean nola prezioan.

Europako herrialde nagusi guztiek areagotu zituzten EAEko produktuen erosketak. Berriro ere, Frantzia eta Alemania nabarmendu ziren, Europar Batasunean egiten diren salmenta guztien erdia bereganatzen dutelako. Bi kasuetan, automobilen pisua garrantzitsua da esportazioen egituran, baina are garrantzitsuagoa da Alemaniako kasuan, non salmenta guztien %45,5 biltzen baitu eta gehikuntza tasa %20,0ra hurbildu baitzen. Frantziari dagokionez, ibilgailuei erregai mineralak gehitu behar zaizkie, esportazio guztien %17,3 biltzen dutelako, eta prezioa jaitsi zen arren, salmenta horien balioa %8,7 handitu zelako.

ESPORTAZIOEN HELBURUA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2014	2015	2015				
			I	II	III	IV	IV
GUZTIRA	9,9	-1,3	-7,0	4,3	-0,2	-2,4	5.728.370
ELGE	9,4	1,6	-3,9	6,6	0,2	3,0	4.602.547
Europar Batasuna	12,9	0,9	-6,0	6,5	0,9	2,0	3.741.442
Frantzia	0,8	5,6	-1,6	13,4	2,9	7,1	952.291
Alemania	7,0	2,4	-1,9	5,1	-7,1	14,6	852.727
Erresuma Batua	11,2	6,8	-0,5	5,4	16,3	6,6	374.121
Italia	9,9	16,9	38,1	19,7	6,7	6,8	320.155
AEB	18,9	0,7	-6,0	2,2	9,4	-3,6	449.036
ELGETik kanpokoak	11,7	-11,0	-17,3	-3,6	-1,8	-19,5	1.125.823

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Erresuma Batuan eta Italian lortutako hazkundeak antzekoak izan ziren eta aurreko hiruhilekoetan eskuratutakoei jarraipena eman zieten. Bi kasuetan, automobilen salmentak berebiziko papera jokatu zuen, egituran pisu handia duelako eta salmentak bi zenbakitan gehitu zirelako. Erresuma Batuko kasua deigarriagoa da, EAEn egiten dituen erosketak guztietatik ibilgailuak heren bat direlako eta laugarren hiruhilekoan atal hori %41,9 hazi zelako. Italian, produktuen kontzentrazioa txikiagoa da eta kapitulu garrantzitsu gehienek gehikuntza tasa nabarmenak eskuratu zituzten.

Garapen bidean dauden herrialdeen artean, EAEko esportazioen helburu nagusia Txina izan zen, ekonomia horretan saldutakoa %10,4 murriztu zen arren, herrialde hartako industriak erakusten dituen zailtasunen ondorioz. Orobat, hazteko arazoak dituzten beste herrialde batzuek ere emaitza txarrak jaso zituzten. Zehatz-mehatz, Brasilera bideratutako esportazioak %25,1 murriztu ziren, Turkiara zuzendutakoak %1,4 eta Aljeriarakoak, berriz, %18,1. Zenbaki

horietatik guztiz aldentuta, salmentak areagotu ziren Mexikon (%2,9), Marokon (%4,3) eta Indian (%27,0).

Inportazioei dagokienez, bigarren hiruhilekoz jarraian jaitsi zen salmenten kopurua eurotan, kasu honetan %1,4an, petrolioaren merkatzeak guztiz baldintzatuta. Hain zuzen ere, erregai mineralen inportazioak, guztizkoaren %23,6 biltzen baitituzte, %30,4 murriztu ziren eurotan neurtuta, inportatu ziren gainontzekoen balioa %14,6 handitu zen bitartean. Azpimarratzekoak dira makinak eta tresnak (%28,2) eta garraio materiala (%61,7) ataletan lortu diren hazkunde biziak. Erregai mineralen ondoren, bi talde horiek dira inportazioen egituraren pisu gehien dutenak.

Esportazioekin gertatu zen bezala, inportazioen jatorria ere gero eta gehiago kokatzen da herrialde garatuetan, atzerrian eginiko erosketa guztien %73,3 bertatik ekarri zirelako. Eremu horretatik batez ere makinak eta ibilgailuak inportatzen dira, baina inportatutako erregai mineral guztietatik erdiak ere ELGEko herrialdeetan du jatorria, bereziki Erresuma Batuan. Zehazkiago adierazita, herrialde horretan erosi zen guztiaren %70,1 erregai mineralak izan ziren. Horrek azaltzen du zergatik erregai tonak %31,9 hazi ziren arren, herrialde horretatik inportatutakoaren faktura %14,8 jaitsi zen.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2014	2015	2015				
			I	II	III	IV	IV
GUZTIRA	9,9	-3,0	-11,3	6,7	-5,7	-1,4	4.174.536
ELGE	15,0	2,7	-10,3	27,1	-2,3	1,1	3.061.225
Europar Batasuna	30,3	5,5	-4,7	27,1	-3,0	5,8	2.726.303
Frantzia	-0,7	11,7	11,3	14,3	11,2	10,2	462.841
Alemania	5,9	20,6	2,4	25,3	32,4	23,8	690.141
Erresuma Batua	180,0	15,1	80,2	80,6	1,9	-14,8	490.540
Italia	2,9	3,5	4,7	-3,4	0,3	13,3	230.086
AEB	-52,3	2,9	-23,6	22,9	23,4	19,1	89.649
ELGETik kanpokoak	0,9	-14,4	-13,7	-20,2	-13,1	-7,8	1.113.311

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Dena dela, EAEko ondasun hornitzailerik behinena Alemania da oraindik. Halaber, hirugarren hiruhilekoz jarraian, herrialde horretatik iritsi ziren inportazioak hazkunde aparta (%23,8) izan zuen, hala makinaren atalean nola ibilgailuenean, pisu gehien dutenak baitira. EAEko inportazioen egituraren garrantzia duten beste herrialde batzuk Frantzia eta Italia dira eta bietan urte arteko gehikuntza tasa %10etik gorakoa izan zen. Hala batetik nola bestetik galdaketa produktuak eta makineria ekartzen da.

Garapen bidean dauden herrialdeetan egiten diren erosketek berriro murriztu zuten beren balioa, seigarren aldiz jarraian, neurri handi batean lehenago aipatu den petrolioaren prezioak nazioarteko merkatuetan izan zuen merkatzearengatik. Eremu horretatik inportatutako guztiaren ia erdia erregai mineralak dira. Ondasun horietatik at, galdaketa produktu gutxiago inportatu zen, horiek ere pisu handia baitute. Herrialdeka aztertuta, Txina da eremuko hornitzaile nagusia eta %14,4 areagotu zituen salmentak EAEn. Salmenta horiek bereziki makineria dira. Errusiak ere emaitza positiboa lortu zuen eta %11,6 hobetu zituen salmentak, bereziki erregai mineralak saltzen dituen arren.

Esportazioen eta inportazioen bilakaerak 1.554 milioi euroko merkataritza saldoa utzi zuen, azken urteetako zenbakirik gorenetako bat delarik. Saldoa, ia osorik, herrialde garatuekin eginiko merkataritzan lortu zen, azalerraten ari direnekin izandako harremana oso orekatua izan zen bitartean eta 12 milioi eurora bakarrik iritsi zen. Neurri handi batean, aldeko saldoa energia alorreko saldo negatiboa oso nabarmen murriztu izanaren ondorioa da, 488 milioi euroan kokatu baitzen, aurreko balioen oso azpitik, ekoizkin horien merkatzeari esker. Beste aldetik, energiaren bestelako produktuen saldoak 2.000 milioi euroen langa gaintu zuen laugarren hiruhilekoan.

Prezioak

2015ean, prezioek oso bilakaera apala erakutsi zuten eta urte arteko aldakuntza tasak negatiboak izan ziren KPIn (%-0,3) zein IPRIn (%-2,6). BPGaren deflatoreak ere urte osoko batez besteko negatiboa (%-0,1) jaso zuen, nahiz eta azken hiruhilekoan balio negatiboetatik irten zen. Zehazkiago adierazita, epealdi horretan %0,0an kokatu zen, batez ere kapital eraketa gordinaren deflatoreak bultzatuta, %1,0ra areagotu baitzen, azken hiruhilekoetako baliorik gorena delarik.

Aurreko epealdietan bezala, KPI indizeak beheranzko presioak nabaritu zituen, petrolioaren salneurriak etengabe beherantz egin zuelako. Petrolio gordinaren bilakaeraren ondorioz,

inflazioaren urteko batez besteko datua balio negatibotan kokatu zen (%-0,3), lehenengo aldiz serie historiko osoan. Halaber, kontsumoko prezioek deskribatu duten beheranzko joera 2016ko lehen hilekoetara ere luzatu da, nahiz eta bai abenduan bai urtarrilean aldakuntza tasa positiboak jaso ziren, joera aldaketa gauzatzen ari zela iradokiz. Hain zuzen ere, otsaileko datuak, ezagutu den azkena baita, KPIaren indize orokorra %-0,5ean utzi zuen. Tasa hori bide erdian dago espainiar erregistroaren (%-0,8) eta Euroguneko batez bestekoaren (%-0,2) artean.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2014	2015	2015		2016	Ekarpena
			III	IV	Otsaila	
Inflazio osoa (100%)	0,2	-0,3	-0,2	-0,1	-0,5	-0,5
Azpiko inflazioa (82,6%)	0,3	0,7	0,8	1,0	1,2	0,9
- Elikagai landuak (14,1%)	0,0	1,1	1,5	1,7	1,6	0,2
- Industria ondasunak (26,6%)	0,1	0,3	0,2	0,6	0,8	0,2
- Zerbitzuak (41,9%)	0,6	0,8	1,0	1,0	1,3	0,5
Hondar inflazioa (17,4%)	-0,6	-4,5	-4,6	-4,8	-8,0	-1,4
- Landu gabeko elikagaiak (6,8%)	-1,2	1,9	3,0	2,8	2,0	0,1
- Energia (10,6%)	-0,1	-8,4	-9,1	-9,5	-14,1	-1,5

Iturria: INE.

Kontsumoko prezioen beheranzko bilakaera horren erantzule nagusia, berriro ere, petrolio gordinak nazioarteko merkatuetan izan zuen kotizazioa izan zen, beheranzko joerari eutsi baitzion eta upelaren prezioa 30 dolarren azpitik kotizatzerira iritsi baitzen. Horren ondorioz, otsaileko urte arteko tasa ia %45era heldu zen. Oraindik gorantz doa eskaintzaren bultzadak eta eskari ahulak petrolio izakinak inoizko maila gorenera eramane zituzten eta prezioak, berriz, 2004tik izan duten mailarik apalenera. Hala ere, petrolio ekoizle nagusien artean ekoizpena egonkortzeko akordio bat prestatzen ari delako albisteak lehengai horren suspertze txiki bat ekarri du eta martxoaren erdialdean 40 dolarretara iritsi da.

Indize orokorra ez bezala, azpiko inflazioak, kontsumoko prezioen hondoko joera hobeto islatzen baitu, ez du apenas nabaritu petrolioaren merkatzea eta azken hilekoetan goranzko joera arinari eutsi dio. Zehazkiago adierazita, 2015eko hasieran %0,3an ibili ondoren, urtean zehar bere urte arteko tasak goranzko urratsak eman zituen eta %1,0an amaitu zuen pasa den

urtea. Are gehiago, 2016ko lehen hilekoetan goranzko joera leun horrek aurrera egin du eta otsailean adierazle hori %1,2era iritsi zen.

Goranzko norabide horretan, KPIaren osagai nagusi guztiek parte hartu zuten. Izan ere, elikagai landuen prezioen aldakuntza erritmoa zertxobait bizkortu zen, ondasun mota horien inportazioak salneurria merkatu zuen arren. Energiatz bestelako industria ekoizkinek ere goranzko joera bera erakutsi zuten, neurri batean euroaren truke tasaren bilakaerak baldintzatuta. Zerbitzuek, berriz, 2016ko hasieran hazkunde neurritsuak izan zituzten, egonkortasuneko joera baten barruan. Hala ere, hondar inflazioak, indizearen elementu gorabeheratsuenak biltzen baititu, beherakada esanguratsuak jasotzen jarraitu zuen, zeren eta energiaren osagaiak gero eta balio negatiboagoak izan zituelako, petrolioaren salneurriaren bilakaeraren eskutik. Zehazkiago adierazita, hondar inflazioaren urte arteko aldakuntza tasa otsailean %-8,0an kokatu zen.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2015				2016
			I	II	III	IV	
Indize orokorra	0,2	-0,3	-0,7	-0,1	-0,2	-0,1	-0,5
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	-0,6	1,4	0,0	1,4	2,1	2,2	1,9
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,0	0,9	0,8	1,1	0,9	0,9	0,1
Jantziak eta oinetakoak	0,2	0,4	0,1	0,5	0,5	0,5	0,7
Etxebizitza	2,0	-1,7	-1,3	-1,3	-1,5	-2,5	-5,7
Etxeko hornidura	-0,4	0,0	0,2	0,1	-0,4	0,2	0,0
Medikuntza	4,3	0,1	-0,2	-0,3	-0,1	0,9	1,0
Garraioa	-0,5	-4,1	-4,9	-2,6	-4,9	-4,1	-4,7
Komunikazioak	-6,1	-1,7	-4,6	-2,3	-0,5	0,6	2,7
Aisia eta kultura	-1,2	-0,2	-0,3	-0,7	0,2	0,1	-0,4
Irakaskuntza	2,7	2,2	2,6	2,7	2,6	0,7	0,6
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	0,7	0,3	0,3	0,1	0,4	0,6	1,2
Besteak	1,2	1,7	1,6	1,6	1,6	1,8	1,8

Iturria: INE.

Petrolioaren salneurriaren beheranzko bilakaerak eragin ezberdina dauka KPIa osatzen duten talde bakoitzean eta lehengai horren prezioaren eragina gehien pairatzen dutenak dira, hain zuzen ere, balio txikiak erakutsi zituztenak. Talde horien artean, azpimarratu behar dira etxebizitzari lotutako zerbitzuak, argindarraren eta berogailuetarako gasolioaren merkatzea

nabariu baitzuten, eta garraioa, beraren prezioen bilakaera oso lotuta dagoelako erregaien salneurriarekin. Beste muturrean, komunikazioen gorakada (%2,7) nabarmendu behar da, telefonia zerbitzuen garestitzearen ondorioz. Halaber, azpimarratu behar da elikagaiak eta alkoholik gabeko edarien (%1,9) eta *besteak* deitutako taldearen garestitzea (%1,8), bi horiek izan zirelako Europako Banku Zentralak ezarri zuen %2ko erreferentziara hurbildu ziren bakarrak.

Industriako prezioek ere, IPRIaren bitartez zenbatetsiak, oso balio txikiak aurkeztu zituzten, aurreko urteetan indize orokorrak jaso zituen urteko batez besteko tasa negatiboak baieztatuz. Izan ere, 2014ko %-1,1etik 2015eko %-2,6ra igaro zen. Salneurrien jaitsiera horretan, indizearen osagaiek parte hartu zuten, zeren eta ia guztiek aldakuntza tasa negatiboak jaso baitzituzten 2015ean, urteko batez bestekoan. Salbuespen bakarra ekipamendurako ondasunak izan ziren, baina %0,3 baino ez ziren garestitu. Berrito ere, energiaren bilakaera nabarmendu zen jaitsiera horietan, 2012an hasi zuen beheranzko joerari segida emanez.

Azkenik, lan hitzarmenei dagokienez, adierazi behar da 2015ean indarrean dauden hitzarmenetan adostutako soldata igoerak 2012an hasi zuen moteltzeko norabideari eutsi ziola. Hala eta guztiz ere, portaera ezberdina hasi da hautematen urtean bertan sinatutako akordioen eta aurreko epealdietan sinatu ziren baina oraindik indarrean dauden hitzarmenen artean. Izan ere, lehenengoak bigarrenak baino zertxobait gehiago hazi ziren 2015ean eta lau hamarreneko diferentziala daukate 2016ko hasieran. Beste aldetik, oraindik ez da alde handirik nabaritzen sektore mailan adostutakoen eta enpresetan sinatutakoen soldata igoeren artean. Hala ere, 2016an sinatu diren lan hitzarmenak oso gutxi dira oraindik eta datu horiek aldatu daitezke urtean zehar.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2014	2015	2016 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	2,7	1,3	0,7	0,6	1,0
- Urtean zehar sinatutakoak	2,0	1,1	0,5	0,9	1,4
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	2,7	1,3	0,8	0,6	1,1
- Enpresako hitzarmenak	2,6	1,2	0,6	0,6	1,0

(*) 2016ko urtarrila arte erregistratutako hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Aurreikuspenak

Munduko ekonomiaren bilakaeraz aurreikuspenak egiten dituzten erakundeak beheranzko zuzenketa arinak egiten ari dira 2016rako eta 2017rako zenbatespenetan. Esate baterako, Consensus Forecastek, martxoko buletinean, 2016ko hazkundera %2,5era jaitsi zuen eta 2017koa, berriz, %2,9ra. Orobat, ELGEk, bere azken txostenean, munduko ekonomiaren hazkundera 2016an %3,0an kokatuko dela zehaztu zuen, azken bost urteko maila txikiena baita, eta 2017an %3,3ra bizkortuko dela. Zenbaki horiek beheranzko zuzenketa ekarri dute 2015eko azaroko txostenean argitaratu ziren aurreikuspenetara. Zuzenketa horien oinarrian, azaleratzen ari diren ekonomia askok hazkunde erritmoa motelduko dutela eta ekonomia aurreratuek, oro har, suspertze apala izango dutela pentsatzen da. Munduko merkataritzaren narriadura da azaleratzen ari diren ekonomien moteltzeaz alarma piztu duen seinale nagusia eta, aldi berean, herrialde aurreratuen susperraldiaren sendotasuna probatzen duena.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumoko prezioak		
	2015	2016	2017	2015	2016	2017
Munduko ekonomia	2,6	2,5	2,9	2,1	2,5	2,8
AEB	2,4	2,1	2,4	0,1	1,3	2,2
Kanada	1,2	1,4	2,1	1,1	1,6	2,0
Japonia	0,6	0,7	0,6	0,8	0,0	1,6
Eurogunea	1,5	1,5	1,6	0,0	0,3	1,4
Europar Batasuna	1,9	1,8	1,8	0,1	0,5	1,5
Alemania	1,7	1,6	1,5	0,3	0,5	1,6
Espainia	3,2	2,7	2,3	-0,5	-0,1	1,3
Frantzia	1,1	1,3	1,5	0,0	0,4	1,2
Herbehereak	1,9	1,6	1,7	0,6	0,7	1,5
Italia	0,8	1,1	1,3	0,1	0,2	1,1
Erresuma Batua	2,2	2,0	2,2	0,0	0,7	1,8
Asia eta Ozeano Barea	4,6	4,4	4,4	1,6	1,6	2,2
Ekialdeko Europa	0,1	1,1	2,4	8,2	6,5	5,4
Amerika Latinoa	-0,3	-0,1	2,1	10,9	11,3	8,2

Iturria: Consensus Forecast (2016ko martxoa).

AEBetan, ekonomia %2,1aren inguruan haziko da 2016an eta %2,4, berriz, datorren urtean. BPGaren gorakada eta enpleguaren hazkundera pausu neurritsuetan gauzatuko dira.

Kontsumitzaileen eta enpresarien konfiantza maila altuetan dago. Petrolioaren salneurri merkeak ekonomia estatubatuarraren bizitasuna lagunduko du oraindik eta ekonomia eragile guztiek aurreztuko dute horri esker, diru hori kontsumora eta inbertsiora bideratuz. Ekonomia sendotuko den heinean, moneta politika normalizatuko dela eta interes tasak igoko direla aurreikusten da. Igoera hori lehenengoa izango da bederatzi urte eta erdiko epealdi batean, eta indarra emango dio dolarrari, atzerriko inbertitzaile gehiago erakarriz. Hala eta guztiz ere, AEBetako moneta agintariak kontuan hartu behar ditu bere erabakiek Europan, Japonian, Txinan eta garatzen ari diren beste ekonomia batzuetan izango duten eragina.

Eurogunerako hazkunde aurreikuspenak ere zertxobait behera zuzendu dira eta hedapen erritmoaren nolabaiteko ahultasuna baieztatzen dute, baina ekonomia suspertzeko etengabeko prozesu batean. Consensus Forecastek Euroguneaz egin dituen azken aurreikuspenek %1,5ean kokatu dute 2016rako gehikuntza tasa eta %1,6an, berriz, 2017koa. Erakunde guztiak bat datoz hazkundera gaur egun bultzatu duten faktoreen eragina iragankorra dela adieraztean. Hain zuzen ere, petrolioaren prezio merkeak, euro ahula eta Europako Banku Zentralaren moneta politika egokitzalea etorkizuneko eszenategi makroekonomikoetan deskontatu diren faktoreak dira. Euroguneko ekonomiaren goranzko bilakaera herabe horren gainean hainbat arrisku sumatzen dira. Esate baterako, administrazio publikoetako aurrekontuak mugatzen dituen austeritateak, iheslarien krisiak eta Europar Batasunaren etorkizunaz dagoen ziurgabetasunak etorkizuneko eszenategi makroekonomikoa mehatxatzen dute.

Espanian, Consensus Forecastek aurreikusten du BPGaren 2016ko hazkunde tasa %2,7aren inguruan kokatuko dela, hots, 2015ean lortutakoa baino puntu erdi bat beherago. Datorren urterako, espero duten aldakuntza tasa berriro apalduko da, %2,3an kokatu arte. Barne eskariak berriro bultzatuko du hazkundera, merkatuko bere agregatuen sendotasunari esker, hala kontsumo pribatuarena nola kapital eraketa gordinarena. Datozen urteetarako espero den zerga politika zertxobait hedakorrak ere nazio eskariaren gehikuntzan lagunduko du. Arlo publikoak, berriz, murrizketekin jarraituko du, zor publikoa eta defizita gutxitzera bideratuta. Kanpo eskariari dagokionez, aurreikuspenek iragartzen dute kanpo arloak ekarpen negatiboa egingo duela berriro. Alde batetik, Europako ekonomiaren susperraldiak esportazioak areagotuko ditu, baina, beste aldetik, barne eskariaren bultzadak inportazioen gehikuntza eragingo du.

Lan merkatuari buruzko aurreikuspenaz, Ceprederen ustez enplegua %1,4 haziko da 2016an eta %1,2, berriz, 2017an. Tasa horiek esan nahi dute 250.000 lanpostu inguru sortuko direla aipatu den urte bakoitzean. Beste aldetik, langabezia tasa %20,7an eta %19,8an kokatuko da, hurrenez hurren, 2016an eta 2017an, urteko batez bestekoan.

ESPAINIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2016ko martxoa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016				2016
	I	II	III	IV	
BPG	3,0	2,5	2,1	1,8	2,3
Kontsumo pribatua	3,3	2,8	2,0	1,8	2,5
Kontsumo publikoa	2,1	1,8	1,5	1,4	1,7
Kapital finkoaren eraketa gordina	5,2	4,0	4,0	3,9	4,3
- Inbertsioa ekipamenduan	8,0	6,1	5,9	5,5	6,3
- Inbertsioa landutako aktibotan	6,3	5,9	3,9	4,1	5,0
- Inbertsioa eraikuntzan	3,9	2,7	2,8	3,2	3,1
Barne eskaria	3,4	2,9	2,3	2,3	2,7
Esportazioak	5,3	5,0	5,1	4,8	5,0
Inportazioak	6,9	6,6	5,8	6,5	6,4

Iturria: CEPREDE.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailak ekonomiaren taula makroekonomikoa eguneratu du 2016rako. BPGaren hazkunde aurreikuspen berriek ia ez dira ezer aldatu aurreko txostenaren aldean. Izan ere, 2016 urte osorako espero den aldakuntza tasak %2,5ean jarraitzen du.

Eskari agregatuan, familien gastua kontsumoan bizi areagotuko da 2016an zehar. Hainbat faktorek lagunduko dute familien errenta erabilgarria handitzen, hala nola enpleguaren sorrerak, petrolioaren prezio apalek eta inflazio txikiak. Ekonomia eragile guztiek nabaritu dituzte konfiantzaren igoera eta kreditua lortzeko erraztasun handiagoa eta horiek familien kontsumoa eta enpresen inbertsioa goraraziko dute. Kanpo eskariak ere lagunduko du EAEko barne produktu gordina handitzen 2016an eta bi hamarreneko ekarpen positiboa egingo du.

Eskaintzari dagokionez, 2016rako oraingo marko makroekonomikoan, sektore guztiek handituko dute balio erantsi gordina. Eraikuntza alorreko jarduerak hazkunde txikia eskuratuko du aurreikusi den epealdi osoan zehar. Badirudi sektore horretako doikuntza amaitu dela, baina ez da hautematen oraindik susperraldi garbi eta sendorik. Industria jarduerak hazkunde tonuari eutsiko dio, ekonomiaren bultzada orokorrari eta merkatuaren egoera onari esker, petrolio merke saltzen delako eta euroak balioa galdu duelako. Zerbitzuek, berriz, susperraldia

baieztatuko dute eta industriarekin batera EAEko ekonomiaren jarduera adar dinamikoena izango da.

EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2016ko martxoa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016				2016
	I	II	III	IV	
BPG	3,0	2,7	2,3	2,0	2,5
Azken kontsumoa	2,5	2,3	2,0	1,7	2,1
Kontsumo pribatua	2,9	2,6	2,2	1,9	2,4
Kontsumo publikoa	1,1	1,2	1,0	1,0	1,0
Kapital eraketa gordina	2,8	2,7	2,5	2,5	2,6
Barne eskariaren ekarpena	2,7	2,5	2,2	1,9	2,3
Kanpo saldoaren ekarpena	0,3	0,2	0,1	0,2	0,2
Lehen arloa	2,8	0,7	-0,8	-1,9	0,2
Industria eta energia	3,9	3,1	2,6	2,0	2,9
Eraikuntza	0,1	0,5	0,7	0,7	0,5
Zerbitzuak	2,9	2,7	2,5	2,4	2,6
Balio erantsi gordina	3,0	2,7	2,3	2,1	2,5
Ekoiizkinen gaineko zergak	2,9	2,6	1,9	1,8	2,3
BPGaren deflatorea	0,2	0,5	0,9	1,2	0,7
Enplegua	2,0	1,8	1,6	1,5	1,7

Iturria: Ogasun eta Finantza Saila.

Lan merkatuari buruzko aurreikuspenek ia ez dira ezer aldatu aurreko eszenategiaren aldean. Enpleguaren gehikuntza tasa 2016an %1,7an izango dela aurreikusten da. Beraz, 2015eko tasa bera jasoko da.